

➤ **Mintzamen-probaren grabazioa entzutea**

Mezu elektronikoa bidali behar duzu [j-uskola@ivap.eus](mailto:j-uskola@ivap.eus) helbidera, zure datuak eta telefono-zenbakia jarrita. Mintzamen-saioak bikoteka grabatzen direnez, ezin izango dizugu kopiarik bidali. Beraz, IVApeko Lakuako egoitzara etorri beharko duzu **2024ko uztailaren 2an** zure saioa entzutera. Uztailaren 1ean, eguerdi aldera, mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu, zein ordutan etorri beharko duzun **uztailaren 2an**. Mintzamen-proba entzuteko eskaerak egiteko epea **ekainaren 28tik 29ra** izango da, biak barne, **ez da onartuko epe horren aurretik edo epe horren ostean egindako eskaerarik**. Mintzamen-proba entzutera etortzen zarenean, konfidentziasun konpromisoaren inguruko dokumentu bat sinatu beharko duzu.